

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko eta, batez ere, emakumeen eskubideen eta emakumeen kirolaren borrokan gure laguntza emateko, gure enpresa izan eta gorde behar duen baliabide garrantzitsuenetako bat da **Jomarekin dugun harremana**.

Lehen azaldu dugun bezala, gure helburua Espainiako Joma enpresarekin akordio batera iristea da, bi aldeentzat onuragarria izango den puntu batera iristeko. Gure asmoa salmenten ehuneko jakin bat eskaintzea da, haiek gure produktuak egin eta banatzearen truke. Hau da, azpienpresa moduko bat izango ginateke Joma barruan. Enpresa honek eskaintzen digun gauzetako bat **ekoizteko eta banatzeko gaitasuna** da, guk ez daukaguna. Gainera, Joma izen handiko enpresa da ehungintzan eta kirolgintzan, 50 urte baino gehiago daramatza (1965ean sortu zen) lanean eta arrakasta handia izan du, bere produktu guztietan kalitatea eta erresistentzia eskaintzeaz gain. Uste dugu **esperientzia** hori oso garrantzitsua izan daitekeela guretzat, Joma ohituta baitago fabrikazioan sor daitezkeen era guztietako arazoak konpontzen, hornitzaileekin harremanetan jartzen edo baliabideak ahalik eta ondoen optimizatzen.

Bere esperientzia ukaezinaz gain, Jomarekin harreman onak izateak bere marka erabiltzeko aukera emango liguke. Hori oso baliagarria izango litzateke gure enpresarentzat, gure herrian duen prestigioaz eta arrakastaz baliatuko baikara gure produktua garatzen hasteko eta emakume gehiagorengana iristeko.

Bestalde, futbolarekin zerikusia duten hainbat emakumerekin jarriko gara harremanetan, hala nola futbolariekin, entrenatzaileekin edo futbol-klubetako zuzendariekin. Gure asmoa haiekin kolaborazioak egin ahal izatea da. Gure helburuetako bat litzateke Aitana Bonmatí konbentzitzea gure kolaboratzaile eta gure enpresaren enbaxadore izan dadin. Jokalari katalan honek, gaur egun Bartzelona Futbol Klubean jokatzen duenak, emakumezkoen azken urrezko baloiaren irabazlea eta emakumezkoen munduko futbol txapelketako txapelduna da. Argi dago palmares inbidiagarria duela eta, horregatik, mundu osoan aitortzen da. Era berean, gure enpresaren irudia izan dadin erakartzen gaituen beste gauza bat emakumeen futbolaren garapenarekin eta ikusgarritasun handiagoarekin duen konpromisoa da. Hori da, zalantzarik gabe, "Womgoal" -en oinarritzeko printzipioa. Horregatik guztiatik, uste dugu Aitana



Bonmatí dela gure proiektuan behar dugun figura eta erreferentea. Gure asmoa futbolari hau hitzaldi ugaritara joatea da, eta ahalik eta ekitaldi gehienetara (herrialdeko hainbat lekutatik) etorriko da.

Azaldutako baliabide hauek marketing-a eta publizitatea garatzeko eta, horrela, gure proiektua bidegarria eta arrakastatsua izateko erabiliko ditugu. Hori lortzeko, baliabide hoiek ezinbestekoak izango dira hainbat funtsezko jarduera aurrera eramateko.